

DIRU-BILKETAKO ADMINISTRARI TEKNIKARIA HAUTATZEKO PROZESUA

BASAURIKO UDALA

1. ARIKETA - A EREDUA

1. Konstituzioak aitortzen dituen oinarritzko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak honela interpretatuko dira:

- a) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ezarritako doktrinaren arabera.
- b) Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta gai horiei buruz Espainiak berretsitako nazioarteko itun eta akordioen arabera.
- c) NBEko Nazioarteko Justizia Gorteak ezarritako doktrinaren arabera.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

2. Baieztapen hauetako bat ez da zuzena; zein da okerra?

- a) Guztiek gastu publikoei aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera.
- b) Zerga-sistema berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarrituko da; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango.
- c) Zerga-sistema berdintasun-printzipioan oinarrituko da, baina ez progresibitate-printzipioan, zeren, kasu horretan, konfiskagarri izan baitaiteke.
- d) Gastu publikoak ekitatez banatuko ditu baliabide publikoak, eta haren programazioak eta betearazpenak eragingarritasun- eta ekonomia-printzipioak beteko dituzte.

3. Nori dagokio, era guztietako prozesuetan, jurisdikzio-ahalaren egikaritzza, epaituz eta epaiturikoa betearaziz?

- a) Bakar-bakarrik dagokie legeek finkatutako epaitegi eta auzitegiei.
- b) Legeek finkatutako epaitegi eta auzitegiei eta Konstituzio Auzitegiari.
- c) Legeek finkatutako epaitegi eta auzitegiei eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.
- d) Fiskaltzari.

4. Nork du legitimazioa Konstituzio Auzitegian babes-errekurtsua jartzeko?

- a) Interes legitimoa dutela adierazten duten pertsona natural edo juridiko guztiek.
- b) Herri-defendatzaileak eta Fiskaltzak.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

5. Konstituzioaren 149.1 artikulua arabera, eskumen hauetatik zein ez da Estatuaren eskumen eskusiboa?

- a) Lan-legegintza.
- b) Jabetza intelektualari eta industria-jabetzari buruzko legegintza.
- c) Merkataritzako marina.
- d) Gizarte-laguntza.

6. Europar Batasuneko Kontseiluan erabakiak hartzeko, oro har, zer gehiengo behar da?

- a) Estatu kideen gehiengo soilak aldeko botoa ematea eta guztizko biztanleriaren % 50 ordezkatzea.
- b) Gehiengo kualifikatua; gehiengo hori lortzeko, bi baldintza hauek bete behar dira aldi berean: Estatu kideen % 55ek aldeko botoa ematea eta alde dauden Estatuak Batasuneko guztizko biztanleriaren % 65, gutxienez, ordezkatzea.
- c) Gehiengo kualifikatu indartua; gehiengo hori lortzeko, bi baldintza hauek bete behar dira aldi berean: Estatu kideen % 66k aldeko botoa ematea eta alde dauden Estatuak Batasuneko guztizko biztanleriaren % 72, gutxienez, ordezkatzea.
- d) Arau orokorra da erabakiak aho batez hartu behar direla, betiere, salbuespen gisa, Tratatuaren bestelako gehiengorik xedatu ezean.

7. Euskal Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak eta administrazio-jardunbideari zein ekonomia-administrazioari dagozkion arauak onartzeko eskumena:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik du.
- b) Partekatua da, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren oinarritzko legeria lege bidez garatu eta bere lurraldean betearaztea.
- c) Estatuko legeria betearazteko eskumena da.
- d) Autonomia-erkidegoak ez du eskumenik gai horretan.

8. Ekonomia Itunaren sistemaren arabera, nori dagokio lurralde historikoen barruan zerga-araubidea mantentzea, ezartzea eta arautzea?

- a) Estatuari, Estatu osoan zerga-egitura orokor uniforme izateko, betiere lurralde historikoetako foru-erakundeekiko lankidetzaren harremanei kalterik egin gabe, foru-erakundeek betearazpen-eginkizunak bete ahal izango baitituzte eskuordetza bidez.
- b) Autonomia Erkidegoari, Euskal Herri osoan zerga-egitura orokor uniforme izateko, betiere lurralde historikoetako foru-erakundeekiko lankidetzaren harremanei kalterik egin gabe, foru-erakundeek betearazpen-eginkizunak bete ahal izango baitituzte eskuordetza bidez.
- c) Foru Aldundiei, betiere Estatuko zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jaso ditzan arauak eta Autonomia Erkidegoaren baitan helburu horietarako Eusko Legebiltzarrak eman ditzanei loturik.
- d) Lurralde Historikoetako erakunde eskumendunei, betiere Estatuko zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jaso ditzan arauak eta Autonomia Erkidegoaren baitan helburu horietarako Eusko Legebiltzarrak eman ditzanei loturik.

9. 39/2015 Legearen arabera, nori dagokio erregelamenduak egiteko ahalak baliatzea?

- a) Nazioko Gobernuari eta autonomia-erkidegoetako gobernu-entitateei, beren estatutuaren ezarritakoaren arabera, eta soilik tokiko korporazioetako Osoko Bilkurari, Konstituzioan, autonomia-estatutuaren eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen aurreikusitakoaren arabera.
- b) Nazioko Gobernuari eta autonomia-erkidegoetako gobernu-entitateei, beren estatutuaren ezarritakoaren arabera, eta tokiko gobernu-entitateei, Konstituzioan, autonomia-estatutuaren eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen aurreikusitakoaren arabera.
- c) Gobernu-maila guztietako administrazioari eta gobernuari, Konstituzioaren, autonomia-estatutuen eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

10. Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren arabera, non zehazten dira oinarriko ordainsariak?

- a) Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen.
- b) Lanbide-sailkapeneko Azpitalde bakoitzerako finkatutako soldata (edo Talde bakoitzerako finkatutakoa, Azpitalderik ez badago) Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeetan finkatzen da, baina hiru urtekoak Autonomia Erkidegoetako aurrekontu-legeetan.
- c) Administrazio publikoetako funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituzten akordioetan, betiere soldata-masak ez baditu gainditzten Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan ezarritako atalaseak.
- d) Funtzio publikoari buruzko legeetan.

11. Baieztapen hauetako bat ez da zuzena zerbitzu berezietan dauden langileei dagokienez, betiere EPOEaren arabera; zein da okerra?

- a) Zerbitzu berezietako egoeran daudenek betetzen duten postuari edo karguari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte, eta ez karrerako funtzionario modura dagozkionak.
- b) Egoera horretan ematen duten denbora hori aintzakotzat hartuko da, igoerak, hirurtekoen aitortpena, barne-sustapena eta aplikatu behar zaien Gizarte Segurantzako erregimeneko eskubideak emateko orduan.
- c) Ez dute izango zerbitzu berezietako egoerara igaro aurretik aitortuta dituzten hirurtekoak jasotzeko eskubiderik.
- d) Ez zaie aplikatuko, Europako Erkidegoetako instituzioetan edo horien parekoak diren erakunde eta organismoetan sartuta, Europako Erkidegoetako funtzionarioen estatutuan ezarritako transferentzia-eskubidea baliatu duten funtzionario publikoei.

12. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren ondorioetarako, noiz ulertuko da epaimahaietan edo antzeko organoetan ordezkaritza orekatua dagoela?

- a) Lau kide baino gehiago izanik, sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkaturik daudenean izango da orekatua.
- b) Lau kide baino gehiago izanik, sexu bakoitzak gutxienez % 50eko ordezkaritza duenean. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkaturik daudenean izango da orekatua.
- c) Bost kide baino gehiago izanik, sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkaturik daudenean izango da orekatua.
- d) Sei kide baino gehiago izanik, sexu bakoitzak gutxienez % 50eko ordezkaritza duenean. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkaturik daudenean izango da orekatua.

13. Alkatearen ebazpen batek amaiera ematen al dio administrazio-bideari?

- a) Bai, beti.
- b) Bai, salbu eta arlo jakinen bateko legeren batek Estatuko Administrazioaren edo autonomia-erkidegokoaren geroko onarpena eska dezan kasu berezietan, edo eskuordetze-kasuetan administrazio horiei errekurtsioa aurkeztu ahal zaienean.
- c) Ez, Osoko Bilkuraren aurrean gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango da beti.
- d) Ez, salbu eta arlo jakinen bateko legeren batek ez dituen salbuesten goragoko lurralde-eremuko administrazio baten aurrean errekurtsioa jartzetik.

14. Zein egintzak sorrarazten du euskal administrazioan gastu-xedapena edo gastu-konpromisoa?

- a) Jakineko edo gutxi gorabeherako zenbatekoko gastua ordainketa-kreditu jakin baten kontura –diru guztia edo kopuru-zati bat horretarako bereiziz– egitea erabakitzen denean.
- b) Egintzaren arabera, legez ezarritako tramiteak bete ondoren baimendutako gastuak, zenbateko jakinekoak, egitea erabakitzen denean.
- c) Egintzak adierazten duenean baimendu eta konprometitutako gastu baten ondorioz erakundeari eska dakioken kreditua dagoela.
- d) Arduradunak, hartutako obligazio bat dela eta, tokiko erakundeko Diruzaintza Nagusiaren kontura ordaintzeko agindua ematen duenean.

15. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia-ituna onartzen duen Legearen arabera, zein arauen bidez arautzen da Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga Euskadin?

- a) Estatuko legeriaren bidez, salbu eta ondasunak Autonomia Erkidegoarenak edo Lurralde Historikoarenak badira; kasu horretan, beren araudi propioaren bidez arautzen baita.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko legeriaren bidez, betiere Eusko Legebiltzarrak onartuta.
- c) Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek emandako arauen bidez. Zerga horrek kasuan kasuko lurralde historikoan dauden landa-ondasun eta hiri-ondasunak kargatuko ditu.
- e) Lurralde erkidean indarrean dagoen Toki Ogasunen Legean ezarritako mugen arabera, Udalek onartzen dituzten ordenantza eta erregelamenduen bidez.

16. Dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, adierazi zein baieztapen ez den zuzena:

- a) Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.
- b) Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa diruaren legezko interesa izango da, ehuneko 25 handituta, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean besterik ezarri ezean.
- c) Europar Batasunak emandako funtsak berreskuratzen diren kasuetan, Europar Batasuneko araudiak ezartzen duen erabilera emango zaie funts horiei.
- d) Dirulaguntzak organo emaileari berreskuratze exijitzeko prozedura guztiek izaera zibila izango dute beti, eta kredituak jurisdikzio arrunteko auzitegietan exijitu ahal izango dira.

17. Hauetako zein ez da jotzen interesduntzat administrazio-prozedura batean?

- a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.
- b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
- c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
- d) Aurreko guztiak jotzen dira interesduntzat administrazio-prozeduran.

18. Herri-administrazioak noiz ez die eskatuko interesdunei sinadurak nahitaez erabiltzea?

- a) Eskaerak egiteko.
- b) Entzunaldiaren izapidean alegazioak aurkezteko.
- c) Errekurtsoak jartzeko.
- d) Akzioetan atzera egiteko.

19. Noiz da derrigorrezkoa administrazio-prozedura bat ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legeko gehieneko epea etetea?

- a) Interesdunek errekusazioa sustatzen badute prozedura bat izapidetzen ari den bitarteko edozein unetan, epea etengo da errekusazioa planteatzen denetik hasi eta errekusatuaren hierarkian goragoko mailakoak hartaz ebazten duen arte.
- b) Interesdunen bati akatsak zuzen ditzan edo beharrezko diren dokumentuak eta irizpen-elementuak bidal ditzan eskatu behar zaionean, epea etengo da interesdunari errekerimendua jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denboran.
- c) Administrazio bereko edo beste bateko organo bati nahitaez txostena eskatu behar zaionean, epea etenda egongo da eskaera egiten denetik txostena jaso arte —interesdunei komunikatu behar zaie gauza bat eta bestea—.
- d) Aurreko kasu guztietan derrigorrezkoa da prozedura ebazteko eta jakinarazteko lege ezarritako gehieneko epea etetea.

20. Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira:

- a) Egun naturalak direla ulertuko da; beraz, larunbatak, igandeak eta jaiegunak ere zenbatuko dira.
- b) Egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, larunbatak zenbatuko dira, baina ez igandeak eta jaiegun izendatutakoak.
- c) Egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak.
- d) Organo eskudunak erabakitako eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako ebazpen bidez Administrazio publiko bakoitzak xedatzen duenari jarraituko zaio.

21. Egintza hauetatik, zein ez da arrazoitu behar?

- a) Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak.
- b) Administrazio-errekurtsoak ebazten dituzten egintzak.
- c) Lehenagoko jarduketetan erabilitako irizpidearekin edo organo aholku-emaileek emandako irizpenarekin bat ez datozen egintzak.
- d) Aurreko guztiak arrazoitu egin behar dira.

22. Paperean egiten diren jakinarazpen guztiak interesdunaren eskura jarri behar al dira jarduten ari den administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoan?

- a) Ez, inoiz ez; izapidetze elektronikotik kanpo daude.
- b) Bai, beti, interesdunak nahi badu haien edukia ikusteko modua izan dezan.
- c) Bai, baldin eta interesdunak eskatzen badu, nahi izanez gero haien edukia ikusteko modua izan dezan, baina ez, baldin eta ez badu behar.
- d) Ez, salbu eta lege-mailako arau batean ez bada xedatzen derrigorrez egin behar dela.

23. Forma-akats bat duen egintza bat deuseztagarria al da?

- a) Soilik egintzak ez dituenetan betetzen helburua lortzeko formazko betekizun ezinbestekoak edo interesdunen defentsa-gabezia eragiten duenean.
- b) Bai, ordenamendu juridikoaren arauen bat hausten delako.
- c) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzi denean soilik.
- d) Kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak urratu direnean soilik.

24. Zer gertatzen da administrazio-prozedura bat hasteko eskaera batek ez baditu betetzen administrazio-prozedura erkideari buruzko legerian ezarritako baldintzak edo aplikagarri den legeria espezifikoan eskatutako beste batzuk?

- a) Eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunari jakinaraziko zaio beste eskaera bat aurkezteko eskubidea duela, egindako akatsak zuzenduta.
- b) Interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.
- c) b) zuzena da, eta honako hau gehitu behar zaio: hautaketa-prozesuetan edo lehia-konkurrentziako prozeduretan izan ezik, hamar eguneko epe hori luza daiteke zuhurtasunez, beste hamar eguneraino, interesdunak eskaturik edo organoaren ekimenez, dokumentuak aurkezteko zailtasun berezirik baldin bada.
- d) b) zuzena da, baina, nolanahi ere, zuzenketa egin den eguna edo nahitaezko dokumentuak eraman dituen eguna joko da prozedura hasteko eguntzat.

25. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, zein dokumentu ez da administrazio-espedientearen parte izango?

- a) Eskerak zuzentzeko errekerimenduak.
- b) Espedientearen instrukzio-egileak eskatutako aukerako txostenak.
- c) Beste administrazio publiko batek egindako aukerako txostenak, espedientearen instrukzio-egileak eskatu ez baditu ere.
- d) Aurreko dokumentu guztiak izango dira espedientearen parte.

26. Administrazio-egintza baten ondorioz dirua ordaindu behar izanez gero, zer prozedurari jarraituko zaio?

- a) Prozedura zibil arruntari, eta zorra auzitegi arruntetan erreklamatuko da, beste partikular bat izango balitz bezala.
- b) a) erantzuna zuzena da, zerga-zorrak direnean izan ezik; kasu horretan, premiamendu-prozedura erregulatzen duten arauetan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.
- c) a) erantzuna zuzena da, zerga-zorrak edo isun eta zehapenak direnean izan ezik; kasu horretan, premiamendu-prozedura erregulatzen duten arauetan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.
- d) Premiamendu-prozedura erregulatzen duten arauetan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

27. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, zein da administrazio-bidean irmoa den egintza baten aurka berrikuspen-errekurtsioa aurkezteko epea?

- a) Ebazpen aurkaratua jakinarazi ondorengo lau urteko epea, egintza ematean egitezko okerren bat gertatu bada, espedienteari erantsitako dokumentuei lotua.
- b) a) erantzuna zuzena da, eta legez aurreikusitako gainerako kasuetan, epea hiru hilabetekoa izango da, dokumentuen berri izaten denetik edota epai judiziala irmoa denetik hasita.
- c) Nolanahi ere, hiru hilabete, legez aurreikusitako kasu tasatuetan.
- d) Administrazio-bidean irmoak diren egintzen aurka ezin da berrikuspen-errekurtsorik aurkeztu, betiere zigor-epai irmo bidez faltsuak zirela deklaraturako dokumentu edo lekukotasunetan oinarritzen ez badira; kasu horretan, hiru hilabeteko epea izango da, horren berri izaten denetik hasita.

28. Zerga-arauek izan al dezakete atzeraeraginik?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Ez, zergei buruzko arauak ez dute atzeraeraginik izango eta arauak indarrean jartzen direnetik sortutako zergei (edozein zergalditakoei) eta orduan hasten den zergaldiko gainerako zergei aplikatuko zaizkie, salbuespen izanik zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimena eta errekaraguen erregimena arautzen dituzten arauak, atzeraeragina izango baitute irmo ez diren egintzetan, baldin eta haien aplikazioa interesdunaren mesederako bada.
- c) Ez, zergei buruzko arauak ez dute atzeraeraginik izango eta arauak indarrean jartzen direnetik sortutako zergei (edozein zergalditakoei) eta orduan hasten den zergaldiko gainerako zergei aplikatuko zaizkie, salbuespen izanik zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimena eta errekaraguen erregimena arautzen dituzten arauak, atzeraeragina izango baitute irmo diren edo ez diren egintzetan, baldin eta haien aplikazioa interesdunaren mesederako bada.
- d) Bai, beti izango dute atzeraeragina zerga bakoitzaren preskripzio-epearen barruan; ez, ordea, Administrazioak bere egintzak ofizioz berrikusteko akzioa preskribatu ondoren.

29. Premiamendu-probidentzia jakinarazi ostean eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60. artikuluko 3. idatz-zatian ordaintzeko ezartzen den aparteko epea igarotakoan, zenbatekoa da premiamendu-errekargua?

- a) % 20koa.
- b) % 10koa.
- c) % 5koa.
- d) Administrazio publiko bakoitzak dagokion arauaren bidez ezartzen duena.

30. Zein da Administrazioak egindako likidazio bat ordaintzeko epea?

- a) Jakinarazten direnetik 15 egun pasatu baino lehen.
- b) Hilaren 1etik 15era arte jakinarazitakoak, hurrengo hilaren 10era arte, eta hilaren 16tik hilaren azken egunera arte jakinarazitakoak, hurrengo hilaren 25ean.
- c) Jakinarazten direnetik hilabete pasatu baino lehen.
- d) Zerga bakoitzaren arautegian ezartzen den epea.

31. Noiz jakinaraz daiteke bertaratuta zerga-arloan?

- a) Zerga-egoitzan edo interesdunak adierazitako tokian jakinarazteko bi ahalegin, gutxienez, egin ondoren zergapekoari edo beraren ordezkariari ezin bazaio helarazi jakinarazpena Zerga Administrazioari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, espedienteen jakinarazpen-ahaleginen inguruabarrak adieraziko dira.
- b) a) erantzuna zuzena da, baina ahalegin bat nahikoa izango da jasotzailea aipatu egoitzan edo tokian ezezaguna bada.
- c) Ezin da bertaratuta jakinarazi; zergapekoak berak bertaratu behar du beti.
- d) b) erantzuna zuzena da, baldin eta, ezezaguna izateaz gain, interesdunak uko egiten badio jakinarazpenari.

32. Noiz hasten da zerga-zorrak ordaintzeko ordainarazpen-aldia?

- a) Zerga-zorrak borondatezko aldian ordaintzeko epea amaitzen denetik hilabete bat igarotzen denean.
- b) Premiamendu-probidentzia jakinarazten denean.
- c) Premiamendu-probidentzia ematen denean.
- d) Ordainarazpen-aldia automatikoki hasten da borondatez ordaintzeko aldia amaitutakoan.

33. Zein kasutan has daiteke bidegabeko sarrerak itzultzeko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean zehaztutako prozedura?

- a) Zerga-zorren edo zehapenen ordainketa birritan egiten denean.
- b) Likidazioa erabateko deuseztasunaren kausa baten eraginpean dagoenean.
- c) Ordaindutako zenbatekoa administrazio-egintzatik sortutakoa baino handiagoa denean, baina ez autolikidazio baten kasuan; izan ere, kasu horretan subjektu pasiboaren akatsa baita.
- d) Zerga-zorren eta zehapenen zenbatekoak administrazioaren ahalak erabiltzeko preskripzio-epea edo iraungipen-epea igaro baino lehen ordaindu direnean.

34. Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2009 Foru Dekretuan (112/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onesten duena) xedatzen denaren arabera, zer balio dute zerga ziurtagiriek?

- a) Dauden zorren adierazpen balioa, eta edukiaren aurka dagokion errekurtsua jarri ahal izango da.
- b) Dauden zorren eratze balioa, eta edukiaren aurka dagokion errekurtsua jarri ahal izango da.
- c) Informazio balioa bakar-bakarrik, eta horien aurka ezingo da inolako errekurtsorik jarri, betiere erregelamendu bidez aurreikusitakoari jarraiki desadostasuna agertu ahal izatearen kaltetan izan gabe eta informazio horrekin zerikusia edukita aurrerago ematen diren administrazio egintzen aurka jar daitezkeen errekurtsoen kaltetan izan gabe.
- d) Informazio balioa bakar-bakarrik, baina administrazio-errekurtsua jarri ahal izango da haien aurka.

35. Bizkaiko Foru Aldundiaren 5/2012 Foru Dekretuaren arabera (5/2012 Foru Dekretua, urtarrilaren 24koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren Araudia onesten duena), zergapekoak ados egonez gero Ikuskatzailtzak egindako adostasun-aktekin, zer hartzen du barnean zergapekoen adostasunak?

- a) Aktan bildutako egitateak soilik.
- b) Aktan bildutako egitateez gainera, bertan ageri den erregularizazio-proposamenaren ondoriozko likidazioan eragina duten elementu guztiak ere.
- c) Aktan bildutako egitateez gainera, bertan ageri den erregularizazio-proposamenaren ondoriozko likidazioan eragina duten elementu guztiak ere eta, kasu horretan, subjektu pasiboak ezin izango du errekurtsua jarri ematen den likidazioaren aurka, adostasuna adierazi duelako.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

36. Zer berme onar daitezke zerga-zorraren ordainketa atzeratzea edo zatikatzea eskatzen denean?

- a) Kreditu-erakunde edo elkar bermatzeko sozietate baten abal solidarioa, ez besterik.
- b) Aurrekoaz gain, kauzio-aseguruaren ziurtagiria, ez besterik.
- c) Aurrekoaz gain, honako hauetako bat: ondasun higiezinaren gaineko hipoteka aldebakarrekoa, ondasun higigarrien gaineko hipoteka aldebakarrekoa, aldebakarreko bahia –lekualdaketa gabe edo lekualdaketaekin– edo nahikotzat jotzen den beste edozein.
- d) a) eta b) letretan adierazitakoak, nagusiki, eta abal edo ziurtagiri hori lortzea ezinezkoa baldin bada, soilik kasu horretan c) letran adierazitakoak.

37. Eten al daiteke zehapenen betearazpena administrazio-bidean errekurtsu edo erreklamazio bat jartzearen ondorioz?

- a) Bai, aukeran, administrazioak hala erabakitzen badu eta zorra bermatzen bada.
- b) Bai, betiere interesdunak eskatuz gero.
- c) Bai, organo eskudunek automatikoki aplikatuko dute etetea, interesdunak eskatu behar izan gabe.
- d) Ez; administrazio-egintzak bete beharrekoak direla dioen printzipio orokorra aplikatzen da, administrazio-prozedura erkidearen legerian xedatutakoaren arabera.

38. Zergei buruzko kontsulten erantzunek lotura-ondoreak al dituzte zerga-administrazioarentzat?

- a) Bai, betiere ZFAOaren 85. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badituzte, kasuari aplikatu beharreko arauak edo jurisprudenzia aldatzen ez den bitartean, eta betiere kontsulta-idazkian jasotako inguruabarrak, aurrekariak eta gainerako datuak aldatu ez badira.
- b) Ez, inoiz ez; erantzunak informaziorako baino ez dira izango, eta zergapekoak ez du erantzukizunik izango zergei buruzko kontsultetan adierazitako irizpideei jarraitu badie aitorpenak egitean.
- c) Bai, betiere zergapekoak berariaz eskatzen badu, eta kontsultaren ondoriozko zerga-betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen badu.
- d) Ez, salbu eta zerga bakoitzaren berariazko araudian kontrakoa xedatzen bada.

39. Zerga hauetako zein ez da nahitaezkoa Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan?

- a) Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- b) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
- c) Ekonomia Jardueren gaineko zerga.
- d) Horiek guztiak nahitaez ezarri beharrekoak dira.

40. Noiz sortzen dira tasak?

- a) Herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasen kasuan, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezi hori hasten den unean, edo zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean.
- b) Jarduerari edo espedienteari hasiera ematen dion eskabidea aurkezten den unean; jarduera ez da hasiko eta espedienteak ez da izapidetuko harik eta egin beharreko ordainketa egin arte.
- c) Tasaren izaera materialak haren aldizkako sortzapena badakar, eta berariazko zerga-ordenantzan hala zehazten bada, sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du bera baitan, erabilera pribatiboa, aprobetxamendu berezia edo zerbitzu nahiz jardueraren erabilera hasi edo amaitzen den kasuetan izan ezik, halakoetan inguruabar horren arabera doituko baita zergaldia, eta kuota proportzionalki hainbanatuko baita, berariazko zerga-ordenantzan xedatzen denaren arabera.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

41. Noiz sortzen da Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga?

- a) Zergaldiko lehen egunean; zergaldia urte naturala da.
- b) Higiezinaren Foru Katastroari deklaratu edo komunikatu behar zaizkion egitate, egintza edo negozioak katastroan ondorioak sortzen dituzten unearen osteko segidako ekitaldian izango dira eraginkorrak zerga honen sortzapenari dagokionez, baina eraginkorrak izateko ez dago zertan haiei dagozkien administrazio-egintzen jakinarazpena egin behar.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira; aldizka ordainagiri bidez kobratzen den tributu honen bilketako aldiari buruz Zerga-ordenantzaren xedatzen denaren arabera da.

42. Subjektu pasibo hauetako zein ez dago Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita, urteko eragiketa bolumenaren arabera?

- a) Eragiketa bolumena 3.000.000 eurotik behera baina 2.000.000 eurotik gora dutenak.
- b) Eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik behera dutenak.
- c) Eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik behera baina 1.000.000 eurotik gora dutenak.
- d) EIZn ez dago salbuespenik eragiketa bolumenaren arabera.

43. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotaren zenbatekoa hainbanatu egiten da ibilgailuaren lehenengo eskuraketaren edo behin betiko bajaran kasuetan.

- a) Bai, hiru hilabete naturalen arabera, eta ibilgailuari alta edo baja ematen zaion eguneko hila ere kontuan hartuko da.
- b) Bai, hil naturalen arabera, eta ibilgailuari alta edo baja ematen zaion eguneko hila ere kontuan hartuko da.
- c) Bai, hil naturalen arabera, eta ibilgailuari alta edo baja ematen zaion eguneko hila ez da kontuan hartuko.
- d) Ez; urteko kuota da, nahiz eta urte naturalarekin bat ez etorri.

44. Zer kontzeptu sartzen dira Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren zerga-oinarria?

- a) Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua hura burutzeko kostua izango da.
- b) a) erantzuna zuzena da eta, horrez gain, mozkin industrialak.
- c) b) erantzuna zuzena da eta, horrez gain, profesionalen ogibidesarien kostua.
- d) c) erantzuna zuzena da eta, horrez gain, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, araubide bereziko antzeko gainerako zergak, tasak, prezio publikoak, eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak.

45. Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko zerga ordaindu behar al da ezkontideek ezkontza-sozietateari ondasunak edo eskubideak ekartzen dizkiotenean, hark ordainketa gisa adjudikazioak jasotzen dituenen eta ezkontideek ondasun komunak ordainketa gisa elkarri eskualdatzen dizkiotenean?

- a) Bai, ondasunak eskualdatzen diren kasua da eta, beraz, zerga ordaindu beharra dago.
- b) Ez; zergapeko kasua da, baina Foru Arauan salbuespentzat jotzen da.
- c) Ez; zerga ordaindu behar ez den kasu bat da, eskualdatzerik ez dagoelako.
- d) Organo eskudunak ezarritako araudian administrazio bakoitzak erabakitzen duenaren arabera izaten da.

46. Nori dagokio herri barruko bideetan egindako zirkulazio arau-haustek zigortzeko eskumena?

- a) Udaltzainburuari.
- b) Udaltzaingoaren Saileko ordezkariari.
- c) Tokiko gobernu-batzarrari.
- d) Udalerrri bakoitzeko alkateari; dena den, alkateak eskumen hori eskuordetu ahal izango du, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

47. Isuna borondatez ordaindutakoan, salaketa ematen den unean bertan nahiz salaketa jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hogeitun egun naturaleko epean, zer ondorio du zehapenaren zenbatekoa murrizteari dagokionez?

- a) Zehapenaren zenbatekoa % 20 murriztea.
- b) Zehapenaren zenbatekoa % 40 murriztea.
- c) Zehapenaren zenbatekoa % 50 murriztea.
- d) Zehapenaren zenbatekoa ez da murriztuko, baina zehapena ez da aurrekari izango Trafiko Buruzagitza Nagusia organismo autonomoaren Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan; betiere, puntuak galtzea ez dakarten arau-hauste astunak badira.

48. Basauriko Udalean, noiz ez da bermerik eskatuko ordainketak zatikatzean?

- a) Zatikatu nahi den zorraren zenbatekoa 7.500 eurotik beherakoa denean.
- b) Zatikatu nahi den zorraren zenbatekoa 7.500–15.000 euro denean, eta eskatutako gehieneko epea 12 hilabetetik beherakoa denean.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- d) Alkateak, udal-diruzainari entzun ondoren, hala erabakitzen duenean.

49. Kontribuzio berezien zerga-oinarria honako honek osatzen du, gehienez:

- a) Obrak burutzeagatik edo zerbitzuak ezarri edo gehitzeagatik toki erakundeek jasan behar duten kostuaren ehuneko 50ak.
- b) Obrak burutzeagatik edo zerbitzuak ezarri edo gehitzeagatik toki erakundeek jasan behar duten kostuaren ehuneko 60ak.
- c) Obrak burutzeagatik edo zerbitzuak ezarri edo gehitzeagatik toki erakundeek jasan behar duten kostuaren ehuneko 80ak.
- d) Obrak burutzeagatik edo zerbitzuak ezarri edo gehitzeagatik toki erakundeek jasan behar duten kostuaren ehuneko 90ak.

50. Prezio publikoen zenbatekoak honako hau bete beharko du:

- a) Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua, gehienez.
- b) Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua, gutxienez.
- c) Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostuaren % 50a, gutxienez.
- d) Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostuaren % 50a, gehienez.

51. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren sortzapenari dagokionez:

- a) Eraikuntza, instalazio edo obra amaitzerakoan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.
- b) Eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.
- c) Eraikuntza, instalazio edo obra baimentzerakoan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.
- d) Eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan gertatzen da, betiere beharrezko lizentzia jaso bada.

52. Ordenantza fiskaletan Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko zergaren kuota osoaren hobari bat ezar daiteke ondorengo eta adoptatuentzat, ezkontidearentzat edo izatezko bikotekideentzat, eta aurreko eta adoptatzaileentzat egiten diren lur-eskualdaketatik edota jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eskualdatzen edo eratzen direnetan, halakoak heriotza dela kausa eta dohainik eginez gero; zenbatekoa izan daiteke hobari hori?

- a) Ehuneko 100era artekoa
- b) Ehuneko 75era artekoa
- c) Ehuneko 50era artekoa
- d) Ehuneko 25era artekoa

53. Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa izango da, zergadun gisa, lurren dohaineko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealeen dohaineko eraketan edo eskualdaketan, pertsona fisiko edo juridiko bat, edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 35.4 artikuluan aipatutako erakunde bat; hain zuzen ere:

- a) Lurra eskuratzen duena edo eskubide errealearen eraketa edo eskualdaketa jasotzen duena.
- b) Lurra besterentzen duena edo eskubide erreala eskualdatzen duena.
- c) Lurraren edo eskubide errealearen gaineko hipoteka eratzen duena.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

54. Ekonomia Jardueren gaineko zergatik salbuetsita egongo dira Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 35.4 artikuluan aipatutako sozietate zibilak eta erakundeak, negozio-zifraren zenbateko garbia honako hau baino txikiagoa dutenak:

- a) 1.000.000€
- b) 5.000.000€
- c) 2.000.000€
- d) 10.000.000€

55. ZERGEI BURUZKO 2/2005 FORU ARAUAren 192.1.B artikulua arabera, ordaintzeko konpromisodun adostasun-akten kasuan, diru-zehapenen zenbatekoa honako portzentaje honetan murriztuko da:

- a) % 70
- b) % 30
- c) % 80
- d) % 60